



2011/09/20(e)ko saioa

LEHENDAKARITZA

Estatuko Aldizkari Ofizialak Euskaraz argitaratuko ditu Lege mailako Estatuko arauak

ETXEBIZITZA, HERRI LAN ETA GARRAIO SAILA

Jaurlaritzak ETSren eskuetan utzi du merkatu logistikoari eta Jundizko eta Lezoko terminal logistiko intermodalak lurraldean eta hiri barruan txertatzeari buruzko azterlanak egitea, terminal horiek garatzeko



LEHENDAKARITZA

Estatuko Aldizkari Ofizialak Euskaraz argitaratuko ditu Lege mailako Estatuko arauak

Erabakia: Lehendakaritzako Ministerioarekin (Estatuaren Aldizkari Ofiziala Estatu Agentzia) lankidetzaren hitzarmen bat sinatzea baimentzeko dena. Hitzarmen horren helburua hau da: legeak euskaraz argitaratzea.

BOE-Estatuko Aldizkari Ofizialak euskaraz argitaratuko ditu lege mailako Estatuko arauak, Lehendakaritzako Ministerioarekin izenpetutako den Lankidetzaren Hitzarmen baten arabera. Gaur onartu du Jaurlaritzaren Kontseiluak lankidetzaren hitzarmen hori. 1997ko Errege Dekretu batek babesten du hitzarmena, izan ere dekretu horretan ezartzen denez, xedapen orokor horiek autonomia erkidegoetako hizkuntza ofizialetan ere argitaratu ahal izango dira, betiere Erregeak berretsi eta Estatuko Aldizkari Ofizialean gaztelaniaz argitaratutakoan.

Lankidetzaren hitzarmen hori Lehendakaritzako Ministerioak, Estatuko Aldizkari Ofizialaren Estatu Agentziaren bidez, eta Eusko Jaurlaritzaren Lehendakaritzako Koordinaziorako Idazkaritza Nagusiak gauzatu dute. Lege organikoak eta arruntak, errege lege-dekretuak eta legegintzako errege-dekretuak euskaraz argitaratzeko beharrezko neurriak abiaraziko dituzte biek batera. Horrela eta hitzarmen hau indarrean jartzen denetik aurreratozen egunotan izenpetzeko asmoa dago, euskaraz argitaratuko dira lege mailako Estatuko arauak. Hala ere, sei hilabete igarotzen direnean, interes berezia dutela iritzitako beste xedapen orokor batzuk euskaraz argitaratzeko eskatu ahal izango dute Eusko Jaurlaritzako sailek.

Euskaratutako xedapenak Interneten bakarrik emango dira argitara, betiere BOE digitalaren oraingo formatuarekin. Horretarako, Estatuko Aldizkari Ofizialaren Estatu Agentziak lege mailako testuen gaztelaniazko bertsioak, behar bezala osatuak, irakurriak eta zuzenduak, emango ditu; bestalde, bidaltzen diren testuetariko bakoitzean ziurtatu egingo da oso-osorik dagokiola Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratutako bertsioari. Eusko Jaurlaritzaren Lehendakaritzako Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzararekiko Harremanetarako Zuzendaritza arduratuko da horiek euskaratzeaz eta euskaratu ondoren Estatu Agentziari bidaltzeaz, agentzia horrek formatu digitalean argitara ditzan euskarazko bertsioak.

Gaur onartutako hitzarmena 1998an Kataluniak eta Galiziak eta 2000an Valentziako Erkidegoak izenpetutako hitzarmenen antzekoa da.

ETXEBIZITZA, HERRI LAN ETA GARRAIO SAILA

Jaurlaritzak ETSren eskuetan utzi du merkatu logistikoari eta Jundizko eta Lezoko terminal logistiko intermodalak lurraldean eta hiri barruan txertatzeari buruzko azterlanak egitea, terminal horiek garatzeko



Erabakia, Jundiz eta Lezoko terminal logistikoak lurralde eta hirigintza aldetik ondo txertatzeari buruzko, eta terminal horiek garatu ahal izateko beharrezkoak diren merkatu logistikoaren gaineko azterlanak egitea Red Ferroviaria Vasca-Euskal Trenbide Sareari gomendiotan emateko dena.

Jaurlaritzak Garraio Sailaren mendeko erakundea den Euskal Trenbide Sarearen (ETS) eskuetan utzi du merkatu logistikoari eta Jundizko eta Lezoko Terminal Logistiko Intermodalak lurraldean eta hiri barruan txertatzeari buruzko azterlanak egitea, terminal horiek garatzeko

2011ko maiatzaren 5ean, Sustapen Ministerioak eta Eusko Jaurlaritzak Lankidetzeta Protokoloa sinatu zuten, Merkantzien Trenbidezko Garraioa Bultzatzeko Plan Estrategikoko merkantzien oinarriko sarearen barruan dauden terminal logistiko intermodalak garatzeko.

Agiri horretan, Eusko Jaurlaritzak beharrezkotzat jotzen du terminal horiek garatzen elkarlanean aritzea, trenbideak eta trenbide azpiegiturek salgaien garraioan garrantzia handiagoa izan dezaten. Protokoloan ageri zenez, gainera, Jundizi eta Lezori dagokienez, Sustapen Ministerioak eta Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Sailak behar diren azterketak egingo lituzkete haien bideragarritasun logistiko eta ekonomikoa ebaluatzeko eta, beharrezkoa balitz, sustapen eta kudeaketa eredurik egokiena zehazteko.

Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Sailak terminalak lurraldean eta hiri barruan txertatzeari buruzko azterlanak nahiz merkatu logistikoari buruzkoak egiteko ardura izango du. Azterlan horiek Sustapen Ministerioaren eskura jarriko dira, proiektua Estatu osorako epeen barruan eta bateratuta garatu ahal izan dezan.

Zehazki, Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Sailak jada ekin dio terminalak lurraldean eta hiri barruan txertatzeari dagokion zatiari, Euskal Autonomia Erkidegoaren Sare Intermodalaren eta Garraio Logistikaren Lurralde Plan Sektoriala egiteko lanen zati gisa. Agiri berriaren ondorioetako batek ageri duenez, 277/2004 Dekretuaren bidez onetsitako Erdialdeko Arabako Lurralde Plan Partziala aldatu behar da, erabilera logistikoen eremu bat erreserbatu behar delako Jundizko terminal intermodala eraiki ahal izateko.

Beraz, oraindik terminalen merkatu logistikoari buruzko azterlanak egin behar dira, baita Lurralde Antolamenduaren arloko organo eskudunak Erdialdeko Arabako Lurralde Plan Partzialaren aldaketarako eskaria dokumentatzeko eskatzen dituen azterlanak ere.

Diseinatu beharreko instalazio intermodalak hirigintzaren eta logistikaren arloetan txertatzeko ebazpideak aztertu eta proposatu beharko dira azterlan horietan.

Jundiz eta Lezo

Eusko Jaurlaritza hainbat jarduera egiten ari da, salgaien trenbidezko garraioa sustatuz eta intermodalitate garatuz garraio sistema orekatu eta iraunkorragoa lortzeko. Jarduera horietako bat da Jundizko eta Lezoko terminalen eraikuntza. Testuinguru horretan sartzeko dira Atlantikoko Salgaien Trenbide Korridorearen proiektuak eta Euskal Autonomia Erkidegoko Garraio Sare Intermodal eta Logistikoaren Arloko Lurraldearen Plana.

Salgaien garraioari dagokionez, Eusko Jaurlaritzak uste du ezinbestekoa dela azpiegitura batzuk edukitzea zamen transferentziarako, baita moduen arteko (trenbidearen eta errepedearen arteko)



elkartruckerako nahiz trenbide-zabaleren arteko aldaketarako, eta azpiegitura horiek itsas portuetara trenbidez sartzeko aukera izan behar dutela. Alde horretatik, trafikoak trenbidera erakartzeko erraztasunak eman nahi dira.

Lezo-Gaintxurizketako terminalak Pasaiako portua trenbide sarearekin konektatzeko aukera emango du, eta Jundizko terminalak, Bilboko portuarekin batera, nazioarteko garrantzia izango duen nodo logistikoa taxutuko du salgaien garraiorako.

Jaurlaritzaren iritziz, bi terminalak eraikiz euskal ekonomia sendotu egingo da, nazioarteko lotura erakargarria izaten delako; salgaiak Autonomia Erkidegoko portuetatik hobeto irteteko aukera emango du, eta trafikoaren nahiz ingurumen eraginaren kanpoko kostuak murriztuko ditu, salgaien fluxuak errepidetik trenbidera transferitzeko aukera emango du, garraioaren nazioarteko kate intermodalerako sarbidea emango du eta garraioaren eraginkortasuna hobetuko du, logistikaren kontzeptu berrietarako jarduera-tartea handitzeaz gain.